

Nazionalismoaren historia eta ideologia.

Hobsbawm eta Gellnerren liburu banaren gainean

Jurgi Kintana Goirieta
Historialaria (UEU, EHU)

Artikulu honek Eric J. Hobsbawm eta Ernest Gellnerrek nazionalismoari buruz duten ikuspegia kritikatzeko du. Lehenik gai honi egin dioten ekarpen positiboa jasotzen du. Ondoren euren ideia batzuk eztabaidatzen dira: nazionalismo linguistikoaren arrazoi eta jatorriak, Estatuaren ustezko tolerantzia, kultura eta nazioen asmatetaren auzia, e. a. Bi autoreon lanak abiapuntutzat harturik, nazionalismoaren ikerketa ustez asepticokoetan ideologia nola tartekatzen den erakutsi nahi da.

This article is meant to be a criticism of Eric J. Hobsbawm's and Ernest Gellner's point of view on nationalism. First of all it emphasizes their positive contributions on this matter; then some other of their ideas are discussed: the causes and origins of linguistic nationalism, the apparent tolerance of the states, the issue of the invention of cultures and nations, etc. To sum up, the article aims to show how a precise ideology is presented in the apparently aseptic investigations on nationalism.

Sarrera

Lantxo honetan nazionalismoaren historiari buruzko egungo ikerketa batzuen gaineko kritika eta gogoeta batzuk egiten ditut. Bi dira aztergai gisa darabiltzadan obrak:

Ernest Gellner (1983): *Nations and nationalism*, Basil Blackwell, Oxford¹

Eric J. Hobsbawm (1990): *Nations and nationalism since 1780. Programme, myth and reality*, Cambridge University Press, Cambridge²

Gehiago ere erabil nitzakeen, baina nire asmorako hauek biok nahikoa dira. Bi liburuek dakarten informazioa izugarri zabala da, eta guztiaz jardutea lantxo honen ahalmen eta helburutik kanpo dago. Xedea, gai baten ikerketan, eta zehazkiago nazionalismoari buruzko historiografian, lan zientifikoa eta ideologia nola nahasten diren erakustea da. Aztergai ditugun liburuetan, guztia ahalik objektiboen tratatuta dago. Autoreek une orotan beren burua gertakarietatik at kokatzen dute. Printzipioz badirudi ez dagoela inolako asmo apologetiko edo polemikorik. Gauzak, direnean kontatzen zaizkigu, autoreek horren kontra ez alde ezer ez balu-te legez. Guztia oso matizaturik ematen dute, eta oso gutxitan agertzen dituzte beren iritzia. Zaila da partzialtasunik aurkitzea, borondatez bederen objektiboak direla begitantzen da eta. Neutraltasuna berentzat ez ezik historialari guztientzat eskatzen dute. Izatez Hobsbawmen afirmazio batek zirikatzen hasi nintzen lantxo hau egiten, ze afirmazio horrek dioenez konbikzio abertzalea edukitzeak praktikoki nazionalismoaren historia lantzeko gaitasun eza dakar aldean:

No serious historian of nations and nationalism can be a committed political nationalist, except in the sense in which believers in the literal truth of Scriptures, while unable to make contributions to evolutionary theory, are not precluded from making contributions to archaeology and Semitic philology (Hobsbawm 1990: 12).

Irakurleak ikusiko duenez, maiz Gellner eta Hobsbawmen arrazonamendu ildoei jarraituko natzaie, lehen uneetan kritika posibleei jaramonik egin gabe. Hau ez da euren hipotesiak osotara neure egiten ditudalako, lan metodo gisa baizik, horiek nora garamatzaten ikusteko. Hala beren hipotesiak azkeneraino onartuz ere zenbaitetan arazoak daudela erakusten saiatuko naiz, ondoren lehen unean egin ez ditudan kritiketara itzuliz.

Artikulu bi atal nagusitan banatu dut. Lehenean Gellner eta Hobsbawmen ekarri positiboak aztertzen da. Bigarrean autore hauen ideiarik badazpadakoenak kritikatzten dira. Lantxo honek, esan gabe doa, ez du gaia agortzen eta kritika asko egiteke geratzen dira.³

1. Gaztelaniazko itzulpena ere badago, (Ernest Gellner 1988), baita frantsesezkoa ere (Ernest Gellner 1989), nahiz hemen jatorrizko bertsioa darabildan.

2. Frantsesezko itzulpena: Eric J. Hobsbawm (1992a). Gaztelaniazko itzulpenari dagokionez gaurkotua dago (Eric J. Hobsbawm 1992b). Jatorrizko bertsioak ez dakartzan gehikuntzak ditu eta horregatik itzulpenari jarraitu natzaio puntu batzuetan.

3. Lan hau bukatu eta argitaratze bidean nuelarik, nazionalismoaren historiografiaren gaia jorratu eta Hobsbawm eta Gellnerren ikuspegiak kritikatzten dituzten zenbait obraren berri izan dut. Kritika horiek diotena ez dut ia neure idazkian erabili, baina kontsultatu nahi dituenarentzat hemen aipatuko

I. Ekarpen positiboak

I. 1. Hobsbawm eta Gellnerren ekarria

Hobsbawm eta Gellner nazionalismoa fenomeno historiko bezala azaltzen saiatzen dira, batez ere XIX. mendeko fenomeno gisa. Gellnerrek nazionalismoaz ematen duen definizioa, eta Hobsbawmek bere egiten duena, hauxe da: «nazionalismoa, funtsean, unitate politikoa eta nazionala bat etorri beharko liratekeela dioen printzipio politikoa da» (Gellner 1983: 1 eta Hobsbawm 1990: 9). Definizio hau ontzat emateko ez dut uste arazo larregirik dagoenik. Ondoren nazionalismoaren agerrera azaltzera jotzen dute autore biek. Ikuspegi nahiko desberdinekin lantzen du bakoitzak gaia. Gellnerrek eredu teorikoak ematen ditu gehienik, Hobsbawmek mugimendu nazionalisten sorrera- eta bilakaera-faseei heltzen die, guztia adibide piloarekin ilustratuz.

Gellnerren arabera, nazionalismoa nekazari-gizarteak industrial bihurtzeko trantsizioan agertuko litzateke: Estatu moderno industrialen populazio mugikorraren beharrak eragingo luke nazionalismoa. Autore honek dioenez, Estatu horien aurretik, gizarte nekazari-komunitate txiki autosufizientez osatua zegoen eta bakoitzaren mugikortasun-esparrua mugatua zenez, ez zuen ardura erresuma bereko biztanleak linguistikoki eta kulturalki heterogenoak izatea. Aldiz industrializazioaren eskulan beharrak leku askotako jendea industri guneeetan biltzea eragiten zuenez, populazioaren kultur aniztasuna arazo bihurtzen zen (langile bakoitzak bere hizkuntza baino ez bazekien ezingo zuten elkar ulertu eta batera lan egin). Estatuak bada, herri-kulturen gaineratik, kultura ofizial bat ezarriko zuen herrialdea homogeneizatzeko asmoz. Prozesu horretan, etnia baten hizkuntza bihurtzen zen gailen, eta besteena baztertzen. Horren haritik hizkuntza ofizialeko etniak lan-aukera hobeak izango zituen gainerakoek baino. Eta diskriminazio-kontzientzia horretatik estatu-nazionalismoaren kontrako beste nazionalismo bat sor zitekeen. Hau da funtsezko eskema Gellnerrengan, eta polito exenplifikatzen du alegiazkoa Ruritania herrialdearen bilakaera azalduz (ikus «The course of true nationalism never did run smooth» atala, Gellner 1983: 58-62).

Gellnerren eredu eskema orokor bezala ez dago txarto, nahiz eta aspektu batzuetan sinplista gertatzen den. Hain zuzen eredu teoriko abstraktuegia izatea egotzi zaio, ez baititu historiaren konplexutasunak kontuan hartzen. Eta ahistorizismo horrek frogagaitza egiten du (Llobera 1987: 57). Edozelan ere, zentzuzkoa da nazionalismoaren agerreraren katalizatzaile nagusiak aldaketa sozioekonomiko handiak izan zirela pentsatzea. Erabat egonkorra den komunitatearengan, nortasun etniko handia edukiagatik, ez da nazionalismorik agertzen. Horregatik Gellnerrek nazionalismoari buruzko ideia okerretako bat bezala hauxe aipatzen du: «Naturala da eta berezkoa, bere baitatik sortzen da. Agertu ezean errepresio bortitzagatik baino ezin izan daiteke.» Alta, Gellnerrek gizarte modernoetan saihestezina deritzo nazionalismoaren agerrerari, horregatik faltsutat dauka baita beste ideia hau ere: «Inoiz formulatu beharrik egon ez ziren ideien ondorio artifi-

ditut: José Acosta (1992), Agustí Colomines (1996), Montserrat Guibernau (1996), Michael Keating (1996), Josep R. Llobera (1987, 1990, 1996a, 1996b), Xavier Rubert (1994), Isidro Sepúlveda (1996), Anthony D. Smith (1996), Edward A. Tiryakian (1989). Erreferentzia hauek Mikel Aizpururi zor dizkiot.

zuala da, eta zorigaitzeko istripuz agertu zen. Bizitza politikoa, are gizarte industrialetan, nazionalismorik gabe egin zitekeen» (Gellner 1983: 129). Nazionalismoaren halabeharrezkotasuna ezagutuagatik ez du ideologia bezala defendatzen: nazionalismoaren garapen eta arrakasta egungo gizarte industrialak eskatzen duen pertsonen mugikortasun beharraren ondorio dakusa. Herrialde hauetan kultura estandar nagusi bat behar da pertsonen mugikortasun geografiko eta soziala bermatzeko eta, hortaz, herrialdearen muga politiko eta kulturelek bat etorri behar dute. Beraz Gellnerrek nazionalismoa egoerak ezarritako inperatibo legez onartzen du, baina ez printzipio politiko legez. Gainera nazionalismoa eta nazioak unitate politiko-kultural bezala gizarte modernoetako fenomenoak irateke, ez betidanikoak:

Nations are not inscribed into the nature of things, they do not constitute a political version of the doctrine of natural kinds. Nor were national states the manifest ultimate destiny of ethnic or cultural groups. What do exist are cultures, often subtly grouped, shading into each other, overlapping, intertwined; and there exist, usually but not always, political units of all shapes and sizes (Gellner 1983: 49).

Hortaz nazioak ez dira lehendik dauden berezko unitateak. Normalean nazioak ezin bereiz daitezke *a priori* beren ezaugarri kultural edo historikoengatik. Herrialdeetan dauden kultur estratu ugarietatik batzuk aukeratuz eta azpimarratuz bereiz daiteke nazioa izan daitekeen multzoa. Zer esanik ez, kontzientzia kolektiboak zaharrak dira, baina ezin auresan daiteke kontzientzia horiek nazional bihurtuko diren, edo kontzientzia komunitario soilera mugatuko. Nazioak neurri batez unitate berriak dira. Nola garatzen da kontzientzia nazionala eta nazionalismoa?

Hobsbawmen funtsezko ideiarekin arabera Estatuak eta erresumek egiten dituzte nazioak eta ez alderantziz. Hots, gobernu eta administrazio komun baten menpean bizitzearen ondorioz, printzipioz heterogeneoa izan daitekeen jendearen artean talde bera osatzearen kontzientzia garatzen doa eta estatu batekiko elkartasun politikoa sortzen. Australia edo Estatu Batuen kasua argia da: Estatuak fundatu aurretik ingelesak besterik ez ziren, beren naziotasuna ordutik garatu dute. Baina hau, kolonietan ez ezik Europan bertan ikus daitekeela gogorarazten du Hobsbawmek, eta XIX. mendean Massimo d'Azeglio italiar abertzaleak esana dakar gogora: «Italia egin dugu, orain italiarrak egin behar ditugu». Hobsbawmek ez du kentzen bestelako talde-identifikazioak daudenik, linguistikoak, etnikoak, e. a., baina dudatan jartzen du talde kontzientzia horietatik estatu propioa edukitzeko nahia deribatu izan denik historikoki. Aldiz estatu bateko kide izanik protonazionalismoa egon zitekeen iraganean ere: «membership of historic (or actual) state, present or past, can act directly upon the consciousness of the common people to produce proto-nationalism.» Estatu-tradizioak nazionalismoa sortarazteko duen indarraren erakusgarri, ohar hau egiten du:

The potential popular appeal of a state tradition for modern nationalism, whose object it is to establish the nation as a territorial state, is obvious. It has led some such movements to reach far back beyond the real memory of their peoples in the search for a suitable (and suitably impressive) national state in the past» (Hobsbawm 1990: 76).

Kontzientzia protonazionalen eta egungo nazionalismoen artean, ordea, normalean loturarik ez dagoela dio, nazionalismoak elaborazio intelektualez

agertzen baitira, ez herriaren pentsakeratik. Grekoen adibidea argigarria da: XIX. mendean nazionalismo greziarra sortzean, Grezia klasikoaren loriak hartu zituzten abiapuntutzat aitzindari politikoez. Aldiz turkoen kontra egiazki borrokatu zuten herritar grekoek ez zuten beren burua «helenotzat» hartzen, erromatartzat baizik (*romaiosyne*), hau da, erromatar inperio kristautuaren (=Bizantzio) ondorengotzat (Hobsbawm 1990: 76-77).

Hobsbawmen ondorioak geure kasura ekarriz, euskal nazionalismoan bertan aurki dezakegu nazionalismoak ez daukala ezinbestez lotura zuzenik (bai zeharkakoak aurrerago ikusiko dugunez) protonazioarekin. Europako beste herri gehienetan baino askozaz identifikazio (proto)nazional argiagoa egon da iraganeko euskaldunen artean⁴. Inguruko mintzairetatik hain desberdina zen hizkuntza edukitzeak eragin bide zuen komunitate bereko kide kontsideratzea. Euskaldunen arteko solidaritate eta are elkartasun politikoaren adibideak maiz gertatu dira historian⁵. Euskal kontzientzia komunitario hori eta euskal estatu edo bestelako entitate politiko-administratibo propio bat edukitzeko nahia ordea, ez dira gauza bera. Ideologia nazionalista agertu zenean ere ez zuen euskal kontzepzioen jarraitzaile izateko antzik erakusten: Sabino Aranaren *euzkotar/maketo* bikotea ez da *euskaldun/erdaldun* tradizionaletik irten. Beste horrenbeste gertatzen da bere *Euzkadi* eta *Euskal Herria* herrikoien artean. Euskal kontzepzioen hizkuntza da ardatza. Herria euskararik gabe ulertezina gertatzen da. Ez hola Arana-Goirirengan. Xalbadorren *Herria eta Hizkuntza* poemako bi pertsonailetan ikus daiteke protonazionalismo eta nazionalismo arteko jarraitasun falta: euskaldun petoa izanagatik bata, Frantzia dago gustura, besteak, aldiz Euskal Herri askea frantsesetik dihardu goratzen.

Aurrera begira, bi kontzepzioak nahastu daitezke, eta argi dago euskaldun izateak jende asko bultzatu duela abertzaletasunerantz. Horretaz zuzen dio Hobsbawmek:

Proto-nationalism, where it existed, made the task of nationalism easier, however great the differences between the two, insofar as existing symbols and sentiments of proto-national community could be mobilized behind a modern cause or a modern state. But this is far from saying that the two were the same, or even that one must logically or inevitably lead into the other (Hobsbawm 1990: 77).

Protonazio batetik nazionalismoa halaberrez agertzen ez dela, gugandik hurrantzen, Galiziako kasuan ikus dezakegu. Bertako biztanleen artean galego izatearen kontzientzia agerian izan da, are espainiar kontzientzia falta ere⁶. Baina

4. Hobsbawm berak protonazio izan daitezkeen artean aipatzen ditu euskaldunak, hungariar, kurdu, somaliar eta juduekin batera (1990: 64).

5. Alde horretatik erabateko desadostasuna daukat Hobsbawmekin, esaten duenean XIX. mendea baino lehenago «it is absolutely certain that language had as yet no political potential» (Hobsbawm 1990: 10). Bere testuan bertan aurki daiteke hori gezurtatzen duen adibide bat: Frantses Iraultzan –Hobsbawmek orduko informe batetik transkribatzen duenez– Frantses agintariak kexatu egiten ziren Frantses Estatuan bizi ziren altsaziarrez, horiek, prusiar eta austriar tropekin kolaboratzeko joera baitzuten, hizkuntza berekoak izateagatik (Hobsbawm 1990: 21).

6. Atzerrira emigratzean beren burua espainiarizat barik galiziarizat aurkezteak ez du espainiar kontzientzia handirik erakusten. Horrek konfusio kuriosoak sortarazi ditu: Kuban espainiar guztiei «gallegos» deitzeko ohitura, garai batean Espainiatik bertara emigratzen zuten gehienak Galiziakoak izan eta beren burua hola agertzeagatik gertatu da.

hortik ez da deribatu Espainian egon gura ezik. Oraintsu arte boto espainolista nagusi izan da eta galiziar nazionalismoa oso ahula. Kasu honek gehiago ere erakusten digu. Galiziar kontzientziaren defentsa sortzean, ez du nazionalismo bakar bat sortu bi baino: galiziar nazioa errebindikatzen duena, eta Galizia portugaldar nazioaren partetzat defendatzen duena. Bi-biek Galiziako herriaren hizkuntza eta tradizioak izan dituzte abiapuntu, baina ondorio desberdinetara heldu dira. Nazionalismoa jatorrizko nazio baten halabeharrezko ondorioa balitz, uste izatekoa da nazionalismo bakarra sortuko lukeela, baina ez da hola. Protonazio deitu diogun horren kultur ezaugarrietatik abiatuz ezin da gerora hartuko duen forma nazionala ondorioztatu.

Nazioak neurri batez sorkuntza-lanaren fruitu dira, ingelesez *making of nations* deitzen dutena. Hala ere erdal espresio horren ganean ñabardura bat egin beharra dago, ematen baitu nazioak etxeak bezala egun batean norbaiti diseinua otu eta eraikuntzari ekinez egiten direla. Ene iritziz nazionalismoak, jatorrizko kulturak hartuta, horiekin jokatzuz, sortzen edo formulatzen ditu nazioak. Ez da asmaketa-lana, errekreazioa baino. *Naziogintza* edo *nazioen eraikuntza* izen egokiak lirateke, prozesua, fenomeno dinamiko gisa hartzen bada, nazioa denboran zehar era desberdinetara berformulatzen den entitate legez ulerturik. Eta dudarik gabe nazioen egite edo pentsatze hori nazionalismoen garaia deitua baino askozaz lehenagotik dator. Alde horretatik ikuspegi murriztegia agertzen dute Hobsbawmek zein Gellnerrek, ez diote eta XIX. mende aurreko garaia ia kasurik egiten. Herrien jatorri, genealogia eta izate politiko berezia azaltzeko mitoak garai eta komunitate guztietan aurkitzen ditugu. Mendebaldean, greko edo erromatarrek bezala Erdi Aroko Europako herriek izate kolektibo kontzientziak zituzten, eta Aro Berri osoan jarraitu zuten. Gehienetan elaborazio intelektualeko mitoak ziren, jende-masa gehienak ezagutzen ez bide zituenak. Geroagoko nazionalismoek, sarri, horien ildoak jarraitu zuten, ideioak sozializatuz. Mito horietan, noski, ez zegoen aurre-determinaturik geroko nazionalismoak zein izango ziren. Batzuek jarraipena eduki dute, beste batzuek ez. Zenbaitetan, mitoen ildotik nazionalismo independentista sortu da, beste batzuetan nazio handiago batera egokitu den eskualde-kontzientzian gelditu da. Hortaz, nazionalismoek lehenagotik zetozen kolektiboan imajinarioak jarraitu eta berreginez «sortu» dituzte nazioak. Prozesu horrek irekita segitzen du gure egunotan ere. Flandrian, esaterako, zenbaitzuek, flandestar eta holandarrek osatutako nederlandar nazioa errebindikatzen dute, hizkuntz kidetasunean oinarriturik. Hau batasun-asmo politikorantz bidera daiteke, edo, ostera, Alemania eta Austriaren artean bezala, hizkuntza eta kulturaren batasuna onestetik haratago ez joan, eta beren buruak bi herri desberdin kontsideratu.

I. 2. Protonaziotik naziora. Gogoeta batzuk hipotesi antzean

Azaltzeke gelditu den puntua protonazionalismo eta nazionalismoaren arteko zeharkako lotura da, euskal nazioaren ideia ez baitzen ezerezetik irten Sabino Aranarengan.

Nik uste iturri bi daudela, ikasia bata eta herritarra bestea, bien artean eten-gabeko eraginarekin. Beraz, alde batetik euskal apartekotasunaren bertsio kultura genuke, Erdi Aroan aurreirudikatzen hasten dena. Seguruenik mito herritarretan

oinarriturik (Jaun Zuriaren kondaira, Arrigorriagako guduaren istorioa eta antze-koak) euskaldunen jatorrizko askatasunaren ideiak elaboratuz joan ziren apologisten eskutik. Bizkaiko lehen kronistengandik abiatuz, Garibai, Poza, Etxabe, Oihernart, Etxeberri Sarakoa, Larramendi eta Astarloaganaino autore asko aipa daitezke. Euskaldunen inguruko imaginario historikoak landu zituzten, ez beti oso muga zehatzekin (batzuetan soilik probintzia batez ziharduten, besteetan euskaldun guztiez...): tubalismoa, basko-iberismoa, kantabresen independentzia, musulmani aurre egitea, odol-garbitasuna, foruen jatorrizkotasuna, e. a. Ideia hauek Aro Berrian zehar segi ditzakegu. Euskal jatorrien azalpen-asmoez gain, kaparetasun edo hidalgia defendatzeko funtzio politikoa zuten, eta XIX. mende hasieratik foruen ezabatze-arriskupean indartu egin ziren. Hau guztia nahiko aztertu da jadanik⁷.

Euskaldun herri xeheak ez bide zuen kontu hauen berri handirik. Bere imaginarioan, Euskal Herriaren eta euskal komunitatearen nolabaiteko ideiak bai bide zeuden, baina hizkuntz kontzientziaren inguruan taxutuak seguru asko. Euskal kontzientzia herritar hori hobeto aztertu beharko litzateke, eta arlo horretan badago lan egiterik. Nolanahi ere nahiko garbi dago euskaldungoari buruzko ikuspegi herritarra arras desberdina zela apologistek argumentu historizista eta arrazialetan funtsatzen zutenetik. Baina bi kontzepzioen arteko jauzia oso handia izanik ere bazegoen loturarik. Azken finean mito kantabres, baskoi, bizkaitar eta gainerakoak, euskal komunitatearen existentzian funtsatzen ziren. "Euskaldunak" hor zeuden, ez ziren elaborazio intelektual bat, jende guztiak sentitzen eta onartzen zuen errealitate bat baino, edozeinek antzeman zezakeen errealitatea. Eta egiazko euskaldungo horren existentzia ageria zelako sortu ahal izan ziren euren gaineko istorio guztiak. Era berean, Sabino Aranak definitutako "euzkotarrek" herri-kontzepzioko "euskaldunekin" zerikusirik eduki ez arren, arraza-ideal hori formulatzerakoan gogotan zituenak, dudarik gabe, errealitateko euskaldunak ziren. Halaber, Aranaren euskal nazioak, neurri handiz, apologisten ildoko imaginario eta mito landuak jarraitu zituen. Baina, esan bezala, mito landu horiek guztiak alferrikakoak ziratekeen egiazko euskaldungoa egon izan ez balitz, mito horiei guztiei oinarri eta zentzua ematen zien gauza bakarra baitzen.

Beraz, nolabaiteko kontzientzia protonazionala egotea ez da soilik nazionalismoari lana errazten dion gauza bat. Ideia nazionalistak formulatu ahal izateko oinarri beharrezkoa ere bada, nazionalismoaren bertsio etnikoan behintzat. Hola, beste adibide bat jartzeko, XIX. mendean sionismoaren sortzaileek imaginatzen zuten judu-nazioa –Palestinan gizarte oso eta burujabe bat osatuko zuena, estratu sozial guztiak betez, eta hebraieraz berba eginez– zerikusi gutxikoa zen orduko Eki Europako juderiarekin (sionista gehienen sorlekua): bertako juduak kristauen artean bizi ziren herrixka sakabanatuetan, hirietan talde oso espezializatua osatzen zuten, eta nagusiki yiddishez mintzo ziren. Baina errealitatea zera zen, Eki Europako juduek talde argiro kohesionatu bat osatzen zutela, gainerako biztanleengandik bereizirik bizi zena. Komunitate horren proiektzioa izan zen israeldar nazioa.

Hau hola bada, aitzindari nazionalistek burutan izaten duten herria, herri horren izaera edo jatorri buruz dituzten hipotesiak edo etorkizunerako aurreikusten

7. Ikus adibidez Julio Caro Baroja (1972), Andrés E. de Mañaricúa (1973), Antonio Tovar (1980), Juan Aranzadi (1981), Jon Juaristi (1992), Jean Goihenetche (1993) edota Koldo Larrañaga (1996).

dituzten eraldaketak zeinahi direlarik ere, existitu egiten da nolabaiteko komunitate bezala. Aurreko atalean ikusi dugunez talde-kontzientzia horiek jakinez ezin aurreikus daiteke ea nazionalismo modernorik sortuko ote duten. Eta noski nazionalismoen abiaburuko talde-kontzientzia horiek ez dira bakar eta eskusiboak izaten, pertsonengan kontzientzia eta sentimendu desberdinak gainjartzen baitira. Baina era bateko edo besteko talde-kontzientzia egotea baldintza beharrezkoa izango da, nahiz ez aski, nazionalismoa sortzeko. Inolako ezaugarri edo sentimendu komunik gabeko pertsona taldeetan, nahiz lurralde berean bizi, ez dirudi posible denik nazionalismo komunik sortzea, ez bada, gorago aipatutako Hobsbawmen ereduak diotenez, Estatu bat sortzen delako beren gainean, zeina denboraz kohesio-elementu bihur daitekeen.

«Nazioek ez dituzte Estatuak eta nazionalismoak sortzen, alderantziz baizik» (Hobsbawm 1990: 10). Esaldi horretan laburbiltzen da Hobsbawmen ideia nagusia. Baina gauzak horren kategorikoki esanda oso alde batera uzten ditu nazionalismoen garaia deituaren aurreko herri-kontzientziak eta (proto)nazionalismoak. Aspektu honetan kritika interesgarria aurki daiteke Joxe Azurmendiren (1995) «Topoi nazional/nazionalistak Ernazimentuan: Camoensen 'Os Lusíadas'» artikuluan.

Lehen atal honetan kontuan edukitzea merezi zuten Hobsbawm eta Gellnerren funtsezko hiruzpalau ideia aipatu ditugu.

Orain ideologiaren kontuari helduko diogu. Auzi batean biek antzeko iritzia agertzen dute, Hobsbawmek hola laburbildurik dakarrena: «Gellnerrekin batera, nazio-gintzan parte hartzen duen *artefaktu*, *asmaketa* eta *gizarte ingeniari-tza* elementua azpimarratuko nuke» (Hobsbawm 1990: 10). Nabarmendu ditugun berbok ez dute konnotazio batere zientifikorik, bai kalifikatiboa. Artifizialtasunaren kontu horri hobeto oratuko diogu kultura herrikoa eta kultura nazionalistaren atalean (II. 3). Aipu hau hemen jarri dut erakusteko nondik doan autoreon ideologia diskretuki izkutua. Has gaitezen bada puntu batzuk ikusten.

II. Ekarpen kritikagarriak

II. 1. Nazionalismo linguistikoari buruz

Hobsbawmek hizkuntzari buruz nahiko trataera luzea egiten du (1990: 110-119). Eta hortik ateratzen den ondorio bat ondokoa da: nazionalismo linguistikoaren eragile nagusietakoa lanpostu hobea lortu eta sozialki igotzeko interes pertsonala dela. Nazionalismo linguistikoa ezin omen da ulertu

unless we see the vernacular language as, among other things, a vested interest of lesser examination-passing classes. Moreover, each step giving the vernacular greater official standing, especially as a teaching language, multiplied the number of men and women who could have a share in this vested interest (Hobsbawm 1990: 118).

Hizkuntza minorizatu baten estandarizazioa bultzatzen duten aitzindariak ez dira izaten langabetuak; ia beti hizkuntza menperatzailean ondo gaitutako pertsonak dira, maiz lanpostu liberal on bat ere badutenak. Beraz ardura hori hartzen badute ez da lan-interesagatik. Bestalde hizkuntza minorizatu baten normalizazioa

ez da berehala gertatzen eta hortaz bere bultzatzaileek ez ohi dute epe motzean, ezta ertainean ere promoziorako aukerarik ezagutuko. Aldiz ohikoa izaten da ondo bizi den bati hizkuntza minorizatuen alde militarizatzeagatik zailtasun eta arazo politikoak agertzea, bere posizioa kaltetzen dutenak. Eta hala ere hizkuntza minorizatuen alde ekingo dute. Izan ere horren guztiaren atzean idealismoa dago interes propioa baino gehiago. Ze errebindikazio linguistikoak, horiek asetzeko behar diren azpiegiturak (eta beraz probetxu atera dezaketen pertsonak) prest egon aurretik egiten dira. Esate baterako, unibertsitatean euskaraz klaseak jasotzeko errebindikazioa irakasle euskaldunak gaituta egon aurretik sortu zen, eta gaur egun ere ikasleak dira errebindikazio hori bultzatzen dutenak.

Egia da hizkuntz nazionalismoak ez direla hizkuntz diskriminazio hutsa egotetik sortzen. Ehundaka dira gaur ere desagertze bidean doazen hizkuntzak, horregatik beren hiztunen artean erantzun politiko edo sikera kulturalik sortu gabe. Baldintza jakin batzuk beharrezkoak dira, adibidez kontzientzia politiko bat egotea, edota estatu-nazionalismoaren zapalkuntza oso latza izatea, edota hizkuntz ordezkapena eraldaketa sozioekonomiko handiekin batera gertatzea, e. a. Baina hizkuntzen defentsa sortarazi duten fenomenoak exogenoak izateak ez du errebindikazio horien bidez kotasuna kentzen.

Hobsbawmen arrazonamendu-ildoan onartuz gero esan liteke beltzen edo emakumeen eskubide-berdintasun eskakizunen atzean lanpostua lortzeko interes egoista dagoela. Eta zer esanik ez, lanpostuetan, emakumeei edo beltzei beren portzentaia demografikoaren arabera kargu-kopuru bat erreserbatzeko eskakizunetan. Gainera froga dezakegu emakumeen edo beltzen mugimenduak ez direla betidanikoak, fenomeno sozioekonomiko batzuen haritik sortuak baizik, hots, hizkuntz errebindikazioekin gertatu den legez. Eta hau guztiau egia izanagatik, ez da egia osoa. Zeren logika-modu horrek isiltzen duena abiapuntuko diskriminazio-egoera da, dela arrazista, sexista edo linguistikoa. Alde horretatik feminismoa, beltzen taldeak edo hizkuntz minorizatuen nazionalismoak duintasunaren eta berdintasunaren aldeko mugimenduak dira. Berdintasun horren lortzeak lanpostuak sortzea ez da «interes sortu baten ondorioa», justizia-kontua baino. Izatez hasierako egoeran, adibidez Belgika osoan frantsesa zenean hizkuntza ofizial nagusia, hizkuntza horretako funtzionario eta irakasleak pribilegio egoera agerian zeuden, flamanderadunen aurrean: beren hizkuntzako lurraldean (Wallonian) lan egin ahal izateaz gain, Flandrian ere egiten zuten. Aldiz flamanderadunek beren lurraldean bertan ere ezin lan egin zezaketen, eta are gutxiago Wallonian.

Egoera hau aldatu nahi izatea nazionalismoaren kapritxoa edo lan-interes berekoien ondorioztat ikustea injustizia eta diskriminazioaren apologia egitea da.

Beti esan daiteke konparaketa ez dela egokia, pertsonak ezin alda dezakete-lako beren sexua edo arraza, eta hizkuntza aldiz bai. Eta horregatik emakumeek edo beltzek berdintasunera heltzeko duten era bakarra gizarteak diren legez onartzen dituzten etorriko dela. Aldiz, hizkuntza baztertu bateko kideek berdintasuna lortzeko duten modu bakarra ez da beren hizkuntzaren estatus politiko-administratiboa aldatzea. Errazkiago, estatuko hizkuntza ikasiz, gainerako herritarrekiko berdintasuna lor dezakete. Izatez oso gauza arrunta izan da eta itxuraz aparteko arazorik gabea:

That languages of purely local or socially restricted use should lose ground to languages of wider use is not surprising. Nor there any evidence that such linguistic change and adaptation met with any resistance from below (Hobsbawm 1990: 115).

Hitzokin badirudi mintzaira-aldaketa gogoz egiten zela, norbere borondate hutsez, eta jendeari ez ziola batere ardura bere hizkuntza uzteak; baina errealitatea bestelakoa da. Aski esanguratsuak dira Estornes Lasak azken zaraitzuar euskaldunei, berrogeita hamar edo hirurogei urte euskaraz mintzatu gabe egon ondoren jasotako testigantzak: «Pena ematen dauzu uskara Otsagin galtzeak?», «Aniz pena, aniz, ni near egiten [...] zomat aldiz near egiten, zerendako bear din galdu?»⁸.

Nik neuk hizkuntza batetik bestera iragateari, bizitoki batetik bestera pasatzearen antza hartzen diot, emigrazioaren itxura alegia. Eta izatez badute loturarik, maiz hizkuntza-aldaketa bizitoki-aldaketarekin batera gertatzen baita, adibidez nekazari-herrialde batetik atzerriko industrialde batera emigratzean. Norbere herrian aurrera ateratzeko ezintasuna eta bizimodu hobere baten guraria dira jendea ingurune arrotz batean ezartzera bultzatzen dutenak. Emigrantea ez du inork bortxatu bizilekuz aldatzera. Bera izan da, are bere dirutik ordainduz bidaia, atzerrira joatea erabaki duena. Baina ezin esan daiteke askatasunez aukeratu duenik alde egitea. Bere herriko egoeraren larriak bultzatu du horretara. Hizkuntzaz aldatzen direnen kasuan beste horrenbeste. Norbere mintzairarekin aurrera egiterik ez dagoenean jotzen du jendeak beste hizkuntza batera. Hizkuntza bat murrizturik gelditzea eta beste bat gailentzea, ordea, ez da besterik gabe hola “gertatzen” den gauza bat. Estatuak hizkuntza ez du jendeak kontsentsuz hautatzen; goitik ezarria izaten da, tokiko eliteek edota Estatuak bultzatua.

Une batez onartuko diogu Hobsbawmi, eta ez da gutxi onartzea, nazionalismoa estatu-aparatuan sartu aurreko garaian (XIX. mendearen bigarren erdian omen), Estatuak hizkuntza bat ofizialtzat ezarri eta hura sustatzean, ez zuela normalean gainerako hizkuntzenganako etsaigo-jarrerarik. Hipotesi horren arabera, hizkuntza bat ofizialtzat hartu eta berau sustatzeko arrazoiak nagusiki pragmatikoak ziren, hau da, hizkuntza horrek jadanik tradizio burokratikoak izateagatik, literatura oparoaren jabe zelako edota Estatu guztian gutxi-asko *lingua franca* gisa erabiltzeagatik bultzatuko zen. Jendeak ere arazo handirik gabe onartuko zuen hezkuntza estatuko hizkuntzan jasotzea. Izatez, gehienetan beste aukerarik planteatu ere ez bide zen egingo, tokiko hizkuntzek ez ohi zutelako ez tradizio ofizialik eta zenbaitetan ezta inolako tradizio idatzirik ere. Gauzak hola, hizkuntz diskriminazioak zeudela suposatzea oraingo begiekin dakusagun kontua litzateke, garaian egoera hura normaltzat onartzen bide zen eta. Are gehiago, hizkuntza minorizatuen lanketa eskatu eta bultzatu zutenak ordurarte existitzen ez zen arazo bat sortu zuten, lehengo sistemak ondo funtzionatzen zuen eta. Hortaz ondo zebilen sistema bat apurtzera etorri zirela ematen du. Nolabait nahastea sortzera. Gellner edo Hobsbawmek ez dituzte gauzak horren gordin esaten, baina horixe ematen dute aditzera. Itzul gaitezen migrazioaren erkaketara.

Eskualde baten garapena Estatuak haren alde ezer egin beharrik gabe gerta daiteke, demagun, eskualde horrek lehendik ere azpiegitura ona izan duelako.

8. Estornes Lasa, *Nafarroako euskaldunen mintzoak*, Gaizka Arangurennek aipatua *Euskaldunon Egunkarian*, 1996.10.30.

Gainerako eskualdeen kontra agintariek agian ez dute ezer edukiko, baina garapenik gabe geratu dira. Atzeraturik gelditu diren eskualde horietako biztanleei gune garatura emigratzeko aukera eskaintzen zaie, eta horixe egiten dute gehienek. Emigratu dezaketelarik ez da kexa larririk sortzen eta ez dute beren jatorrizko eskualdearen garapenik eskatzen. Sistema hau arazorik gabe dabil bada. Hala ere, une batean eta dena delako arrazoiengatik, gune atzeratuko pertsona batzuk beren eskualdea aurrerabidean jartzeko ekintzak burutzen hasten dira, hola bertako biztanleek inora emigratu beharrik eduki ez dezaten. Hasieran jende gutxi heldzen dio aukera honi, ez baitute argi ikusten beren eskualdearen garapena posible denik. Baina apurka-apurka gero eta gehiago dira beren herrialdean geratu nahi eta horretarako behar den eskualde-garapena lortzeko presio egingo dutenak.

Aukera berri horrek lehendik bazebilen sistema bati desorekak sortarazi dizkio. Alta, uste dut mundu guztiak onartuko duela emigratu barik beren eskualdean gelditu eta hura sustatzeko hautua egin zutenek eskubide osoa zutela horretarako. Eskubidea ez ezik, justiziazkotzat ere har daiteke. Emigratu zein geratzeko posibilitatea izanik, ez dago dudarik jende gehienak gurago izango duela azken hau. Beraz aukera hori ahalbidetzeko bitartekoak jartzea giza interesen alde ekitea da. Antzekoa da hizkuntz nazionalismoak egiten duena. Minorizatutako hizkuntza bizitzako arlo guztietan erabiltzeko egokitzeari heldzen dio eta beharrezko ofizialtasun-estatusa lortzeko borrokatzen da.

Hau ez da herri xeheak darabilen berbetarekin zerikusi gabeko kontua. Hobsbawmek deskonektatu egiten ditu hizkuntza ofiziala eta mintzatua, hari horren existentziak ardura ez balio bezala eta honek haren izaeraz axola gabe iraun ahalko balu bezala: «gehienetan hizkuntza zahar eta berriak [ama-hizkuntzak eta Estatuko ofizialak] sinbiosian bizi ziren, bakoitza bere esfera propioan.» eta «[ama] hizkuntza hauen estatus ofizialak ez zeukan garrantzirik, kultur edo erabilera ofizialeko hizkuntza edozein izanik ere, [ama-hizkuntza] euren eskuetan baitzegoen» (Hobsbawm 1990: 114). Soziolinguistika dagoenetik badakigu, gure egunotan hizkuntza mintzatu batek bere «eskola, bulegoa eta komunikabideak» ez baditu ezin iraungo duela. Biziraupenerako ezinbesteko baldintza da. Baina Hobsbawmek horretaz ideiarik ere ez daukala dirudi.

Erabat makurra da hizkuntza minorizatudun herri xeheak nazionalismo linguistikoagatik interes handirik erakusten ez duela esatea, beren hizkuntzak ardura ez balie bezala. Intelektual indigenistak omen dira ere eta ez indiarrek eskolan bertako hizkuntzetan irakastea eskatzen dutenak. Arazoa benetan hautatzeko aukera balego legez planteatzen du Hobsbawmek. Zertarako nahiko dute indiarrek beren hizkuntzan alfabetatu, jakinik goi-irakaskuntzan, administrazioan eta Estatuko beste edozein arlotan sartzeko gaztelania dela balioko dien bakarra? Norbere hizkuntza gorde baina marginaturik egon, edo hizkuntza arrotza hartu baina sozialki hobetu: hor ez dago libreki aukeratzetik. Hizkuntza bati bideragarritasuna ukaturik jendeak haren eskaria ez egiteak ez du ezer esan nahi hizkuntza horren ganako atxikiduraz. Esperientziak erakusten du hizkuntza bat normaltasunez bizitzeko egokitzen denean, lehen hari uko egin eta Estatukoa hartzen zutenek orain nahiago dutela berena.

Aldatzeko gaitasuna edukitzeak ez du esan nahi garena izaten segitzeko eskubiderik ez dugunik. Batez ere garena izaten segitzeko nahia badugu. Eskubide hori ahalbidetzeko bitartekoak jartzea gizakiaren askatasunari bideak irekitzea da. Hizkuntzak berez, «biziraupen-borroka erabat darwinistan» dihardutela onartzea, Hobsbawmek egiten duen legez, oihaneko legea gizakiei aplikatu nahi izatea da. Indartsuenaren edo zehazkiago basatienaren legeari egoki iriztea. Gizarteaz eta pertsonaz ari gara eta gure arteko harremanek sozialak izan behar dute. Etika-pixka bat duen edonork onartuko du hau. Gertakariak ezartzen digutenera makurtzea barik pertsonen errealizazioa izan behar genuke goiburu. Bestalde, hizkuntzen borroka darwinistaren kontu horrek zer esan nahi du? Hizkuntza bat beste bati gailentzeko arrazoietan ez dago ezer «naturala» denik. Hizkuntza batek ez du beste bat «berez» egokiagoa delako ordezkutzen. Agente sozial, politiko eta ekonomikoak dira nagusitasuna eman edo kentzen dutenak, hots gizartearen baitako faktoreak, ez basoko faktoreak. Eta normalean Estatuak da guztiaren atzean dagoena, definizioz gorputz politiko bat dena, hortaz ez-naturala.

Orain arte bigunki suposatu dugu Estatuak asmo suntsitzailerik gabe ziharduela. Hori, ordea, aski eztabaidagarria da. Eta aski eztabaidagarria da «nazionalismoen garaia» baino askozaz lehenagoko kasuetan ere. Hobsbawmek «Egia da nazio nagusiak edo *Staatvolk*-ak hizkuntza eta kultura txikiagoak aktiboki deuseztatzeko ahaleginen kasuak egon zirela, baina *XIX. mendearen bukaera aurretik kAsu horiek arraroak izan ziren*» esatean (etzana nirea), ezjakintasunagatik dioela pentsatuko dugu. Ez baita gaur goizekoa «que siempre la lengua fue compañera del imperio».

Erraza da politika linguistiko eta uniformizazio-ahaleginen adibide franko ematea «nazionalismo aurrekoa» den garaitik irten beharrik gabe. Lagin bezala, Espainiako adibide-pare bat ikusiko dugu: Granada konkistatuta arabiar hizkuntza desagertarazteko interes berezia egon zen, eta 1526ko dekretu batek debekatu egin zien moriskoei beren hizkuntzaz mintzatzea. Amerikan jada 1516an agertzen dira gaztelania indiarrei irakasteko xedeak. 1638an Cuzcoko apezpikuak zera ziotzan erregeari: «Es triste cosa que latinos y griegos diesen su lengua a los vencidos y nosotros no a estos indios [...]; no ha habido nación culta en el mundo, que cuando extendía sus conquistas no procurase hacer lo mismo con su lengua». Aragoiko Koroako lurraldeetan Nueva Planta-ko dekretuen ildotik, gaztelaniak katalana ordezkatzeko neurriak bultzatu ziren: «se procure mañosamente ir introduciendo la lengua castellana en aquellos pueblos [...] a cuyo fin dará las providencias más templadas y disimuladas, para que se note el efecto, sin que se note el cuidado». 1770ean, Carlos III.ak, Amerikarako zera eskatzen zuen: «que de una vez se llegue a conseguir el que se extingan los diferentes idiomas de que se usan en los mismos dominios y sólo se hable el castellano»⁹. Nafarroan, 1778ko dokumentu batek dioenez, herri euskaldunetan irakaskuntzaren bidez gaztelania ezartzen zen «no sólo a los niños, prohibiéndoles el vascuence, sino es a todo el pueblo»¹⁰. Gehienetan asmo horiek eragin mugatua baino ez zuten izan orduko bitartekoak eskasak zirela-

9. XIX. mende aurretiko hizkuntz inposaketaren adibideak Europan eta berezikiago Espainiar Inperioan ikusi nahi dituenak Joxe Azurmendiren *Espainolak eta Euskaldunak* liburuan (1992) material ugari aurkituko du (207-257 orrietan gehienik). Bertatik hartu ditugu goiko adibideak.

10. Jimeno Juriok aipatua (1997: 184). Idazle honen liburuak euskarak Nafarroan jasandako gorabehera historikoen berri zabala ematen du.

ko (eskolatze orokor eza, komunikabideen eragin hutsala...). Baina asmoa hor zegoen. Geroko Estatuaren hizkuntz politika «nazionalistek» egin zutena, ezer berria asmatu barik, ideia zaharrak eraginkorkiago eta bitarteko hobeekin garatzea izan zen.

II. 2. Estatuaren nazionalitateekiko tolerantziaren gainean

Es casi seguro que la libertad cultural y el pluralismo lingüístico gozan de mejor protección en los grandes estados que se saben plurinacionales y pluriculturales que en los estados pequeños que van tras el ideal de la homogeneidad étnico-lingüística y cultural (Hobsbawm 1992b: 196).

Baieztape hori frogatzeko Estatu txiki “nazionalista” batzuen etsenpluak azaltzen ditu Hobsbawmek, bertan minorien kontra egin diren gehiegikeriekin. Egiazko gehiegikeriak eta are giza eskubideen bortxaketak, dudarik ez. Estatu txiki gehiago ere aipa daitezke, adibidez Belgika edo Suitza eta are mugimendu nazionalista baten eskutik sortu zen Finlandia (demografiagatik txikitat har dezakegu), guztiak ere munduko hizkuntz politikarik tolerantak eta pluralenetakoa aurrera dararamatenak. Baina horien aipamenik ez dakar Hobsbawmek. Kultur askatasuna eta hizkuntz aniztasuna ongien babesturik omen dagoen estatu handi tolerantak ere ez ditu etsenplifikatzen. Mendebal European ba ote dago gero holakorik? Frantzia, Britainia Handia, Espainia edo Italia neurritz handiak dira eta beren baitan kultura ugari dago. Baina Estatuotako batek ere ez du bere burua plurinazionaltzat onartu eta horren arabera funtzionatzen, nahiz, noizik behinean, plurikulturalismoaren fraseologia erabiltzea gustuko duten. Har dezagun, esate baterako, Hobsbawmen aberria, eta berak haren politikaz dioena:

The English hardly gave a thought to the preoccupations of the Scots and Welsh, as they gloried in the home-grown exoticism of the British Isles. Indeed [...], who welcomed lesser nationalities which did not challenge the greater, all the more, the more unlike the English they behaved: the thicker the Irishness or Scottishness were laid on with the trowel (Hobsbawm 1990: 36).

Bada begira, hainbeste “ongi etorriren” ondoren non bukatu duten galeserak, irlanderak eta Eskoziako gaelikoak: heriotzaren ateetan, ingelesek gainerako britainiar kultura folklorikoei harrera ona egiten bazieten, paraleloki haien hizkuntzen aurkako errepresio aktiboa burutzen zuten. Kymrueradun umeei, adibidez, eskolan, beren berbeta erabiltzean zigor-idunekoak jartzen zitzaizkien, Euskal Herriko eraztunen parekoak. Hau, esan daiteke, ez zela hizkuntza lokalak suntsitzeko xedez egiten, baizik Estatuotako hizkuntza ezagutarazteko. Eta zigor-metodoak erabiltzen baziren garaiko pedagogia txarraren ondorio zela. Baina azken finean asmoa nazionalitate txikiak britainiar nazioan asimilatzea bazen, eta hala zen, bukaerako helburuen artean homogeneotasun linguistikoa lortzea ere egon behar¹¹. Kulturaren ez ezik, arlo politiko eta administratiboan ere homogeneotasuna erdietsi nahi zen, horretarako herrialde historikoen eskumenak murriztu edo suntsitu eta boterea Londresen zentralizatuz.

11. Hobsbawmek aipaturik (1990: 34), XIX. mendeko Mill britainiar liberalaren iritzia aski argia da. Autore hark zioenez, galestarrentzat eta eskoziar highlanderrentzat, egokiena britainiar nazioan urtzea zen eta, era berean, baxenafar euskaldunek edo bretoiak hobe zuketean erabat frantses bihurtzea.

Hori guztia nazioen eraikuntza liberalak aldean zekarren. Frantses iraultzatik sorturiko Estatu hiritarraren ondorio zen. Logika horretan, hizkuntza bat eta botere zentral bat bultzatzea, biztanle eta lurralde guztien berdintasuna lortzeko helburuarekin egiten zen, ez asmo nazionalistekin... Baina estatuen berrantolaketa irizpide ustez arrazionalak eta neutralak jarraituz egin arren *de facto* nazionalitate hedakor bat gailentzen zen: ingelesa. Bere hizkuntza, bere kultura, bere tradizioak, bere erakundeak zabaldu ziren estatu osora. Uniformatze-prozesua antzekoa izan zen erakunde zahar guztiak erabat suntsitu eta Frantzian bezala berriak eraiki zituzten estatuen kasuan. Eta ezin esan daiteke hori zenik estatu hiritar liberala eraikitzeko era bakarra. Antolaketa politikoan federalismoa ere posible zen. EEBBek bide hori hartu zuten. Aldiz frantses iraultzaileek eredu federal hori ezagutu eta aztertu arren, zentralismoa hobetsi zuten. Kultur arloan, ez zegoen ezinbestez Estatu osoan hizkuntza bakarra ezarri beharrik. Iraultzaren lehen garaietan tokiko hizkuntzak erabili ziren Asanblada Nazionalak hartutako erabakiak idatziz zabalitze-ko. Baina laster frantses elebakartasuna ezartzea erabaki zen. Alta, lehen uneko eleniztasun-politikak, hizkuntza ofizial bat baino gehiago edukitzeko aukera hor egon zela erakusten du. Eta hala ere nazionalitate bakar uniforme bat sortu nahi izan zuten, bai Frantzian, bai Ingalaterran, bai Espainian eta baita gainerako Estatu historiko handietan ere.

Estatu handi hauen politikaren eta Hobsbawmek estatu txiki nazionalista deitzen dituen horien helburu eta ondorioetan ez da beraz aparteko diferentziarik ikusten. Eta aski esanguratsua da, estatu hiritar (beraz ez nazionalista Hobsbawmen arabera) aitzindariak, Frantziak, aukeratutako politika linguistiko uniformatzailea izan dela estatu-nazio bihurtu nahi izan duten herri txiki askok jarraitutako ereduak. Izatez Estatu txikiek handien politikak kopiatu besterik ez dute egin. Estatu handi eta txikien arteko berdintze-politiketan, gehienez, metodozko desberdintasuna egon liteke. Txikiek agian neurri politiko agresiboagoak hartzen dituzte beren ahuleziagatik. Baina hau, maiz, espejismo bat da. Izan ere, Estatu txikien inposaketa-salaketek oihartzun handia izan dezakete salatzailea hizkuntz komunitate handi bateko kidea denean. Hola, Estoniako hizkuntz exigentziak ez bide dira Errusian ezartzen dituztenak baino latzagoak. Baina Estoniako errusieradunek Errusiaren botereaz baliaturik entzute handiagoa lortu dute, Moskun ezarri eta errusiera ikasi behar izan duten estoniarrek baino. Era berean, Espainian, euskararen, galegoaren eta zer esanik ez katalanaren ustezko inposaketaz sarri hitz egiten da. Legeak herritar orori eta lurralde linguistiko guztietan soilik gaztelania jakiteko ezartzen dion inposaketa, aldiz, ez bide da hain eskandalugarria.

Dena dela, estatu handi askok gaur egun, ze ez iragan hurbilean, hizkuntza txikiekiko agertzen duten tolerantzia, ez da inondik ere «kultur askatasuna eta hizkuntz aniztasuna» onartzearen ildotik doan jarrera. Tolerantzia, Koldo Mitxelena-
nak zioen legez, hizkuntza menperatzailearen aldeko politika da, nahiz neutraltasun-itxurapean ezkutaturik datorren:

La tolerancia, el *laissez faire, laissez passer* en materia de lengua, [...] como el liberalismo económico, es una manera tan eficaz como cualquier otra –más eficaz en realidad, puesto que ofrece omisión, no una acción con cuya responsabilidad alguien tiene que cargar– de favorecer a unas lenguas y de postergar a otras: es, por lo tanto, una política, no una falta de política (Michelena 1985b: 187).

Eta hori da nagusienik Europako estatu handiek jarraitzen dutena. Britainia Handian bezala, Frantzia ere hizkuntza txikiak desagertze bidean daude oraindino. Hizkuntza txiki bati ofizialtasuna ezagutzea ez da aski, inertziak hizkuntza nagusiaren alde egiten baitu. Baina Frantzia legezko berdintasun hori bera, onartu gabe dago. Azken urteotan ez da noski hizkuntza txikien aurka garai bateko jazarpen aktiborik egon. Ezta beharrik ere, hezkuntza, administrazioa eta komunikabideak frantsesetik emate hutsarekin aski izan da eta. Arlo horietan hizkuntza «lokala» sartzeko zailtasun praktikoak argudiatzeak (hizkuntza ez dagoela prestatuta edo ez dela pertsonal egokirik aurkitzen bezalakoak) ez dauka oinarririk. Hezkuntzan, Ipar Euskal Herriko kasuan adibidez, Ikas-bi eta Seaskak zailtasunak izan badituzte, administrazioak dirulaguntzak ukatzen dizkielako da eta ez, demagun, irakasle edo testu-liburuaren faltagatik. Arrazoi ekonomiko horren atzean daudenak erabaki politikoak dira, administrazioak ez dauka eta arazorik frantsesetik hizkuntza ordaintzeko eta are atzerrian subentzionatzeko. Justiziako egoerak argi erakusten du arazoaren izaera: Hegoaldeko euskaldunek Frantziako epaiketetan euskaraz deklaratu dezakete; Iparraldeko euskaldunei eskubide hori ukatzen zaie. Non dago zailtasun teknikoak? Estatuaren asmo uniformatzaileak dira horren guztiaren kausa. Ondorioak, noski, igarri egiten dira: Iparraldeko biztanleen artean, 65 urtetik gorakoak % 37a euskalduna da, 16 eta 24 urtekoen artean % 11a baino ez.¹² Euskaldun-kopuruaren erorketa horrek ez du aldatzeko joerarik erakusten. Frantziak hizkuntz aniztasunarekiko duen “tolerantziaren” adibide argia da.

Espanian egoera hobexea bada, ez da Estatuaren politikari esker izan, haren kontrako erantzunagatik baino. Estatu handien deszentralizazioak eta kultur autonomiak, ia beti, talde nazionalistek gogor borrokatu ostean lortu dituzten konkistak izan dira eta ez Estatuaren kontzesio eskuzabalak. Tradizioz nolabaiteko barne-aniztasuna onartzen duten estatuak ere hala izan da. Aurreko adibidera itzuliz Britainia Handiaren kasua paradigmatikoa dugu. Europa osoan ez da egon seguru asko beste estaturik bera osatzen duten herrialdeei (Gales, Ingalaterra, Eskozia) hainbeste onarpen sinboliko egin izan dienik: herrialde diferentearen kontsiderazioa, bandera propio ofizialak, nazioarteko kirol-selektzio bana, txanpon lokalen jaulkipena, e. a. Baina elementu horiek kenduta, Britainia Handia, orain arte, Frantzia bezain zentralista izan da praktikan. Ikusi ditugun aniztasun-tradizioetan oinarrituz, Britainia Handia aspaldi eta zailtasun handirik gabe bihurtu zitekeen, esate baterako, Estatu federal plurinazional. Londresek, baina, galesen edo eskoziarren autonomi eskari txikienei ere luzaz trabak jarri izan dizkie. Eta azkenean, britainiar laborismoak Gales eta Eskoziarako parlamentu autonomoen sorrera bultzatzea erabaki duenean, bertako nazionalismoen indarren neurrian onartu dizkie konpetentzia gehiago edo gutxiago.

Ez dirudi bada zerikusi handirik duenik estatuaren tamainak bere baitako nazionalitateen onarpenarekin, ez linguistiko-kulturali, ezta politiko-administratiboki ere. Konstatazio orokorren bat egitekotan, esan liteke estatu handiek zentralismo politiko eta kulturala oso ozen errebindikatu gabe burutzen dutela, estatu txiki “nazionalistek” neurri deigarriagoekin egiten duten bitartean. Hala ere, estatu handien intentzionalitatea, dudarik gabe, estatu txiki “nazionalistena” bezain uniformatzailea da. Bestalde dimentsio apaleko estatuak politikoki edo kulturali irekiak ez

12. Euskal Kultur Erakundearen azterketa. Cfr. *Euskaldunon Egunkaria*, 1996.10.20.

izateko ez dago inolako arrazoi intrintsekorik. Atal honen hasieran aipatu ditugu hizkuntz aniztasuna onartzen eta bultzatzen ditzuzten herrialde txiki batzuk. Guggandik hurbilago, nahiz estatu mailarik ez duen, Katalunia aipa dezakegu. Nazionalista katalanek boterera heltzean, katalan hizkuntza bultzatzeaz gain, Arango mintzaira ere ofizial bihurtu zuten, ordurarte aurrekaririk gabekoa zena. Europa aldeko estatu handien artean, hizkuntz pluraltasuna onartu ez ezik, aktiboki bultzatu ere egin zuen bakarria Sobietar Batasuna eta bere orbitapeko Eki Europako herrialdeak izan ziren. Honek, ordea, zerikusi eskasa du estatuon neurriarekin, eta handia beren jarrera ideologikoarekin. Beraz inondik ere ezin har ditzakegu egungo estatu handien adibidetzat.

II. 3. Kultura herrikoa eta kultura nazionalista

Gellner nahiz Hobsbawm ados agertzen dira nazionalistek defendatzen eta sustatzen duten kultura ez dela herriak egiazki darabilena esatean:

Nationalism is, essentially, the general imposition of a high culture on society, where previously low cultures had taken up the lives of the majority, and in some cases of the totality, of the population. It means that generalized diffusion of a school-mediated, academy-supervised idiom, codified for the requirements of reasonably precise bureaucratic and technological communication. It is the establishment of an anonymous, impersonal society, with mutually substitutable atomized individuals, held together above all by a shared culture of this kind, in place of a previous complex structure of local groups, sustained by folk cultures reproduced locally and idiosyncratically by micro-group themselves.

But this is the very opposite of what nationalism affirm and what nationalists fervently believe. Nationalism usually conquers in the name of putative folk culture. Its symbolism is drawn from the healthy, pristine, vigorous life of the peasants, of the *Volk*, the *narod*. There is a certain element of truth in the nationalist selfpresentation when *narod* or *Volk* is ruled by officials of another, an alien high culture, whose oppression must be resisted first by a cultural revival and reaffirmation, and eventually by a war of national liberation. If the nationalism prospers it eliminates the alien high culture, but it does not replace it by the old local low culture; it revives, or invents, a local high (literate, specialist- transmitted) culture of its own, though admittedly one which will have some links with the earlier local folk styles and dialects (Gellner 1983: 57).

Pasarte honetan deskribatzen den egoera, nagusiki kultura “herrikoidun” gizarteena, XIX. eta XX. mendeen hasierakoa da. Gellnerren ereduak nahiko ondo azaltzen bide ditu orduko nazionalismoaren gorabeherak. Baina gaur egungo nazionalismoek, European behintzat, alfabetatze orokorra jadanik zabaldua dagoen gizarteetan dihardute, mikrokulturak praktikoki desagertu diren gizarteetan. Hortaz egungo nazionalismoen ekintza Gellnerren eredutik urrundu egiten da. Ez noa horren gainean sakontzera. Pasartetik interesatzen zaidana nazionalistek ezartzen duten kulturaren eta Gellnerrek “folk” kultura deitzen duen horren kontua da.

Herri-kultura bere hartan fosilizatzea ezinezkoa da. Ideia bera absurdua da, kulturak dinamikoak baitira. Ez dakit Gellnerrek zein nazionalista ezagutzen duen, ze nik uste kulturaz arduratzen den edozeinek onartuko diola helburua besterik dela. Nazionalismoak goi-mailetan eredu landuak sartuz egiten duena herri-kulturrari jarraitasuna ahalbidetzea da, bai eskala sozialean (arlotzuetara zabalduz),

baita kronologikoan ere (biziraupenerako aukera emanez). Horretarako, noski, aldaketak egiten dira. Gauza batzuk aldatzen dira herri-kultura oso-osorik aldatu beharrik egon ez dadin (atzerritar kultura batek ordezkaturata).

Izan ere, kultura garatu berri bat jartzeak ez du esan nahi herriko kulturarekiko atzerritar kultura garatua bezain arrotza denik. Kultura guztietan mailak egoten dira, horregatik kultura berberaren parte izateari eta sentitzeari utzi gabe. Etsenplu hurbil bat jartzearen, euskal baserritarrek badakite euskara batua ez dela zehazki beren etxeetan darabilten hizkera bera, baina euskara denentz ez dute inolako dudarik: hizkuntza berbera bezala sentitua da.

Norbere berbetaren forma landu bat egotearen kontzientziak forma mintzatua mantentzeko konfidantza ere eman ohi du. Tokiko berbeten eta estandarraren artean ez da hausturarik gertatzen. Hitzuna bere hizkeratik, ez hura baztertetik, abiatzen da eredu landura. Eredu landua forma kolokialen esferan sartzen hasten bada (beti gertatzen ez dena) haiekin apurka-apurka hibridatuz egiten du, ez kolpera ordezkaturaz. Era berean eredu landuak tokiko hizkeren lexikoa, esamoldeak eta beste hainbat ezaugarri etengabe jasotzen ditu. Azken hau erakundeek planifikaturik baino gehiago herritar eta idazleen bidez gertatzen da. Hizkera kolokialak eta landuak sistema linguistiko bera osatzen dute, bata bestearengan eraginez. Horrelako ezer ere ez da gertatzen hizkuntza ofiziala arrotza denean: hitzunak hizkuntza ofizialaren eta berearen artean jauzi koalitatiboa dakusa. Bere hizkuntzarekin eten egin behar du ofizialera pasatzeko, ez dago inolako aukera gradualik. Gehienez substratuzko azentu eta hitz gutxi batzuk gorde ditzake eta denboraz hondar-lexikoa hizkuntza ofizialera sartu barik norbere hizkeratik kentzeko joera egongo da. Doinua bera gehienetan “kaikukeria” gisa arbuatzen da eta desagertzera jotzen du.

Nazionalismoak defendatzen duen kultura ez da herri-kulturaren berdindin-berdina. Baina beren artean dagoena “lotura batzuk” baino gehiago dela esan daiteke. Bestalde herri-kulturen forma garatuak XIX. mendearen aurretikoak dira. Erromantzeak, esate baterako, Goiz Erdi Aroan hasi ziren maiztasunez idazten, eta dudarik gabe herri-hizkeraren luzakin gisa agertu ziren. Baina “goi-funtzioetan” hasi bezain laster behe-mailako hizkera izateari utzi zioten, horregatik herri-hizkuntzatik jauzi gaindigaitzik egin gabe. Beste kultura batzuen kasuan Errenazimentuan agertu ziren beren forma landuak, eta beste batzuenak oraintsuago. Kultur nazionalismoak fenomeno jarraitu zuen, ez sortu.

Hobsbawm eta Gellnerrengan konstantea da kultura landu zein nazionalistei, eta izatez nazioekin zerikusia duen guztiari, laborategiko asmaketa iriztea. «[Hizkuntza nazionalak] hizkuntza estandarizatu bat asmatzeko ahaleginak izan ohi dira, benetan hitz egiten diren hizkuntzetatik [sic] abiatuz, zeinak aurrerantzean dialekto-mailara degradatuak geratuko baitiren», (Hobsbawm 1990: 54). Estandar nazionalak sortuak direla agerikoa da. Baina gure autoreok etengabe darabiltzaten “artifizial” eta “asmatu” adjektiboek prozesua neutralki azaldu baino kalifikatu egiten dute. Eta hitzon esanguratik zera ematen du, hizkuntza idatziak jendeak mintzo duenarekin deskonexioan agertutako sorkario direla. Baieztapen horrek dioenaren kontrara, hizkuntza estandarrak ez dira hizkuntza berri baten asmaketa, ezta gizartetik at egindako sorkuntza ere. Mintza bekigu Mitxelena:

[Una lengua] posee estructura o estructuras, pero éstas sólo en sectores bastante marginales son obra de una acción consciente y organizada. Muchos son los que están [...] descontentos con los sistemas de urbanización o con los económicos y políticos que hallamos impuestos; queremos cambiarlos y, no contentos con quererlo, podemos tratar de modificarlos en la medida de nuestras posibilidades. Por el contrario, nadie intenta alterar deliberadamente las estructuras básicas de su lengua. [...] Si se dice de alguien que la ha cultivado y enriquecido, esto significa que, aceptándola en su ser, se ha valido de ella para amoldarla a sus propias necesidades y exigencias, a las de su momento, a las de su comunidad (Michelena 1985a: 155).

Hizkuntza estandarrak bada pertsonen komunikazio eta kultur beharizanen fruitu dira. Eta eredu idatzia lortzeko hizkuntzan egiten diren eraldaketak azalekoak. Fenomeno honek guztiak ezer gutxi du artifizialik, gizartearen komunikazio-tresna optimizatzen baita, ez harengandik isolatuta ezer berririk fabrikatzen. Komunitateek dela kolektiboki dela gizabanako moduan, beren kultur ondarea bizi eta egokitzea, artifiziala barik erabat naturala da, bizigogoaren adierazgarri ageria. Hurrengo atalean esango dugu honetaz zerbait gehiago.

II. 4. Nazionalismoaren etorkizunaz

Azken puntu honen gainean Hobsbawm eta Gellnerrek dauzkaten ideiak nahiko desberdinak dira. Gellnerren ustez, gizarte industrial bakoitzak bere funtzionamendu ekonomikorako kultura estandarizatu bat behar duenez, gizartea unitate linguistiko-kulturalen arabera antolatu beharko da politikoki. Hortaz, Gellnerrek etorkizunean ere nazionalismoen biziraupena aurreikusten du: «Aurrerantzean eta luzaz [...] unitate politiko eta kulturalen bateratasunaren inperatibo nazionalista aplikatzen segituko da» (Gellner 1983: 121). Dena dela, etorkizuneko nazionalismoa, aldaketa sozioekonomiko handien garaikoa bezain agresiboa ez izatea espero du, transformazio handi horiek jada baretu baitira.

Hobsbawmen iritzia oso bestelakoa da. Nazionalismoaren proiektua, hots nazio-estatuak sortzeko asmoa, globalizazio eta antzeko fenomenoek kariaz agortzen ari dela deritzo.

Lo que está en duda no es la fuerza del anhelo de identidad de grupo que sienten hombres y mujeres, una de cuyas expresiones, pero no la única [...], es la nacionalidad. Tampoco está en duda la fuerza de la reacción contra la centralización y la burocratización del poder estatal, económico o cultural, por ejemplo contra su alejamiento y la imposibilidad de controlarlo. [...] Lo que ponen en duda los escépticos es la supuesta imposibilidad de resistirse al deseo de formar estados-nación homogéneos, así como la utilidad tanto del concepto como del programa en el siglo XXI (Hobsbawm 1992b: 197).

Horregatik zentzu gutxikoa deritzo gaur egun estatu berriak sortzeari edo kultur homogeneousasuna lortzeari, hau da, hizkuntza txikiak, adibidez, gizarteko funtzio guztietara zabaltzeari. Horren ordez, Hobsbawmek XIX. mendeko European elebitasun soziala normalizat hartzen zuen bezala (hizkuntza mintzatuak arazorik gabe beste hizkuntza ofizial batekin bizitzen egotea), egun, batez ere Hirugarren Mundurako, gauza bera gertatzea deritzo logikoena. Hau da, hizkuntza ofizial “zabal” bat egotea (kasualitatez bezala kolonialismoak eramandako ingeles, frantses eta gaztelania ohi direnak), hizkuntza “lokalei” esparru mintzatuak utziz edo nahi

bada are ezagutza ofizial sinbolikoren bat onartuz: «What may be called non-competing multi-lingualism or bilingualism analogous to the relation in the nineteenth century between official culture/state languages and subaltern dialects and patois, already seem common» (1991: 162) eta adibide batzuk aipatzen dizkigu:

It is unlikely that Quechua, given equal official status in Peru since 1975, will seek to replace Spanish as the language of, say, daily press and university, or that, whatever official standing of some vernacular in African or Pacific British ex-colonies, the way to education, wealth and power will not continue to pass through English (Hobsbawm 1990: 162).

Hobsbawmek ohi duenez ez du horren aldeko edo kontrako iritzirik agertzen. Soilik “konstatatu” egiten duela dirudi. Baina azken finean konplazentziaz egiten du: «Eredua ez bide da izango nagusigoagatiko borroka, Quebecen bezala, funtzioen banaketa baizik». Nori ez zaio atseginagoa egiten belarrira «funtzioen banaketa» kalifikazioa, «nagusigoagatiko borroka» baino? Batak harmonia eta oreka dakar gogora, besteak gatazka eta arazoak. Baina oreka eta harmonia hitz horien atzean desberdintasunaren onspena gordetzen da, hizkuntza guztiei garapen-aukera berberak ez onartzea. Diskurtso horren azalpena Txepetxengan aurki daiteke:

Discurso de la Desigualdad:

Sólo la lengua del poder (la lengua oficial del estado) puede y debe dotar a los súbditos de un desarrollo completo. Sólo la mentalidad y la ideología nuestra (los poderosos) puede ser, al mismo tiempo divulgada y vivida (AB). Las otras pueden ser vividas, pero no divulgadas (lenguas A) como utopías infantiles que deben ocultarse en el armario íntimo de la cocina y el sueño. O pueden ser divulgadas, pero no vividas, como seniles anacronismos archivables (lenguas clásicas: B) por los historiadores. Así hasta que resulten impensables e imposibles (situación 0) como lo uno y como lo otro (Sánchez Carrión 1990: 28).

“Funtzio-banaketa” ez da egoera orekatu bat, hizkuntza batek besteari espazioak kentzen dizkion egoera baino, denboraz desagertzera kondenatuz. Eta hori isilik gordetzen du Hobsbawmek.

Europar gauzak zertxobait desberdinak dira. Ezin da herrialde “indigenentzat” bezain konponbide neokolonial gordina ezarri. Gure artean nazionalismo linguistikoak indar handiagoa du eta ez dago erabat ukatzerik. Hortaz, honako irtenbideak aurreikusten ditu:

Catalan culture today flourishes, but on the tacit assumption that it is Catalans who will communicate with the rest of the world through Spanish and English, since few non-residents in Catalonia will be able to communicate in the local language.

Eta honi ondoko datua gehitzen dio:

When abroad, two-thirds of Catalans considered themselves “Spanish” in the 1970s (Hobsbawm 1990: 182).

Hori da, antza, Hobsbawmek Estatu gabeko nazionalitateentzat onargarria deritzon etorkizuna. Etxean autonomia apur bat, baina mundu mailan nortasun propioaz agertzeko aukerarik ez. Gainera Estatu txikiak sortzeak independentzia

errealik ez dakarrela dio («no haría sino incrementar el número de entidades políticas [que] dependerían de un orden internacional. Y cuando surja tal sistema internacional los pequeños y los débiles desempeñarán en él un papel real tan insignificante como el que Oldemburgo interpretaba en la política de la Federación Alemana en el siglo XIX» Hobsbawm 1992b: 195). Lizardik aspaldi erantzun zien holako planteamenduei: «Bada nik, (jaun oiek astotzat joko banaute ere), naiago det ibai txiki izan, baña ene urak neronek itsasora eramateko jabe; ta ez nere izena ta nere izana galdu, ibai aziago bati nere burua eman bearrez».¹³

Hobsbawm eta bere moldekoek irteerarik gabe uzten dituzte estaturik gabeko herriak. Abertzaleen estatu-eskariak gaitzesten dituzte gaur egun egitura hori gaindituta edo gainditze bidean dagoela esanez. Baina bestetik errealitatea zera da, munduan estatu-erakunde bakoitzak ez zaiela subjektu-izaera ezagutzen. Estatu txiki batek beti edukiko du botere handiagoa menpeko eskualde autonomo handi batek baino: Andorra hogeita hamar mila biztanlerekin norbait da Nazio Batuetan; Espainiako Katalunia sei milioi biztanlerekin inor ere ez. Baliteke estatua zaharkiturik egotea, baina oraindik ere dago nazioen arteko berdintasuna bermatuko duen egitura alternatiborik. Hobsbawm berak aitortzen du Estatuaren zeregina, bere ustez, mantendu eta areagotu ere egingo dela etorkizunean. Hortaz ondoriozta genezake Estatu propio baten errebindikazioak zentzuzkoa izaten segitzen duela eta segituko duela.

Eta hala ere nazionalismoen aldia amaierara heldu dela esaten zaigu behin eta berriro. Tesi hori baina, jarrera ideologiko bat da, printzipio-eskari bat. Nork dio estatu berririk sortu behar ez denik? “Historiak”? Berezko patu batek? Determinismo metafisikoak esan behar al digu zer egin behar dugun? Geure etorkizuna geure eskuetatik kendu eta interes etereoen menpe jartzen dutenek pertsonen adingabetasuna defendatzen dute. Erljioen inposaketak gainditu ditugunean, jainko berriak bihurtu ote dira “merkatua”, “globalizazioa”, “postnazionalismoa”, “kapitalismoa” eta beste, gure borondatearen gainetik egoteko? Pertsonok eta kulturak Estatuaren zerbitzari izan behar ote dugu, ala Estatuak egon behar du pertsonen eta kulturen zerbitzuan? Bada garaia pertsonak subjektu historiko bihurtzeko eta geure geroa geronek erabakitzeko.

Euskal Herria ez da nazio izatera aurre-determinaturik egon; ezta nazio ez izatera kondenaturik egon ere. Euskal nazio proiektuaren agerrera, bilakaera historiko konplexu baten fruitu izan da, munduko gainerako nazioena bezalaxe. Nazio horrek –edo beste edozein naziok– hartuko duen forma ez dago aurretiaz erabakita. Aukerak anitzak dira: espainiar estatu federal plurinazional baten baitan gera daiteke, edo errepublika euskaldun burujabe bihurtu, edo Euzkadi erdaldun subiranoa izan, edo Nafar monarkia plurikultural batean gauzatu, edo... Herri bakoitzaren geroa irekia da. Berak izan nahi duena izan daiteke. Biztanleek beren kultur ondarea berreginez, imajinatu nahi duten herria eraikitzea, etorkizuna askatasun eta demokrazian sortzea da. Biztanle horiei beren geroa estatu aparatuek ezartzea, aldiz, inposaketa. Gizakiok askeak bagara geure bilakaera hautatzeko, maila kolektiboan ere eskubide berbera izan behar dugu. Geure izaera, hizkuntza, tradizio eta kontzientzia kolektiboa eguneratuz, egokituz eta birlanduz organismo sozial bat bizirik eta eboluzioan mantentzen dugu: nazioa. Naziogintza horri

13. *Jazten* aldizkarian (5. zbk., 1991) aipatua.

asmakeria deritzenek museoko fosil izatera kondenatzen gaituzte, estatuak ezarritako ingeniari sozial arbitrarioaren menpe utziz. Estatuaren inposaketa hori aldebakarrekoa da, pertsona afektatuak onespenez gabe eta beren iritzia entzun gabe ezarria, hortaz antidemokratikoa eta giza garapenaren aurkakoa. Horren aurrean autodeterminazioa, bai kulturala, bai politikoa, ideal humanista agertzen zaigu, pertsonen heldutasuna aintzat hartzen duelako, geure etorkizuna geure eskuetan utziz.

Ondorioa

Gauzak “hola” izan zirela esatea, bestela ezin izan zitezkeela pentsarazteko modu bat da. Hizkuntza bateko hiztunek beren mintzaira arazorik gabe uzten zutela esateak, hizkuntza horren aldeko jarrerak zentzugabe eta alferrekoak zirela ondorioztatzea bide txikia dago. Gertakariak gainean inolako kritikarik ez egitean horiei onespenez ematen zaie. Neutraltasun hori bedeinkazioaren ildotik doala pentsarazteko arrazoi gehiago ere badago, gauza guztiekiko ez baitira iritzia isiltzen: estatu handien nazionalismoak “deskribatu” eta halako determinismo-kutsuaz gertakari kontsumatuz hartzen diren bitartean, egungo nazionalismo txikien asmoei buruz, dudak eta kezak agertzen dira, kasu horietan, estatu baten lortzea, saihestu beharreko aukera gisa aurkeztuz. Noizean behin estatu handien politikaren salaketak egitea (frantsesek ingelesari dioten beldurra edo EEBBen hegoamerikar inmigranteenganako izua adibidez) ez da nazionalismo guztia justiziaz epaitzearen seinale. Itxurazko neutraltasun hori, gertakari guztiei balorazio berbera egitea, hizkuntz politikan bezala historian ere, indartsuenen alde doa¹⁴. Autoreek, noski, asmo politikorik gabe idazten dutela esan dezakete. Eta beharbada, soilik beharbada, hola izango da. Baina zientzialari orok izan behar du bere lanaren ondorioen jakitun.

Ideologia eta proiektu politiko bat edukitzeak ez du zertan historiaren interpretazio okerra sortu behar. Ideologia dugula ukatzea, isiltzea eta ezkatzea areago izan daiteke destorsionatzailea. Nork bere ideologia agertzeak, hura ikergaiaren barruan objektibotasun-itxurapean ezkatuzetik libratzen gaitu.

Politika mailan proiektu abertzalea defendatzen duten historialariei dagokionez, Hobsbawmek diotenaren kontrara, lan serioa egin dezakete (dezakegu). Nork bere proiektua iraganean ez justifikatu beharra da horretarako baldintza. Abertzale batentzat, hori posiblea ez ezik oso komenigarria ere badela deritzot: beti atzera begira justifikatu behar badugu geure etorkizuna, iragan horrek hipotekatuko digu proiektua, eztabaida apologetikoen menpe egongo baikara, ez geure borondatearen menpe. Joxe Azurmendik dioten legez, ez du ardura iragana nahi genuena ez izateak. Etorkizun hobe bat da behar duguna, ez iragan hobe bat (1992: 559-563). Horregatik iraganean gustuko ez ditugun gauzak aurkitzeari ez diogu beldurrik

14. Izatez, Hobsbawmek bere liburuan iritzia argi agertu ez arren, beste nonbait esplizituki adierazi izan du garai bateko nazionalismoak oro har onak zirela eta oraingoak aldez txarrak («jo crec que mentre que és possible mantenir que, diguem al darrer segle, el nacionalisme tenia una funció positiva, crec que al final d'aquest segle ja no és així»). Horixe adierazi zion Hobsbawmek *L'Avenç* aldizkariari elkarrizketa batean (Marcet 1992: 27).

izan behar. Historia den bezalakoa da, eta alferrekoa da faltsutzea. Errealitatea ikertzean bere hartan ulertu behar dugu. Baina Hobsbawmek eta Gellnerrek egiten dutenaren kontrara, bere horretan ulertzeak ez du esan nahi dagoenean onartu behar dugunik. Historiaren aurrerantzeko bilakaera alda dezakegu. Hori gure aukera da. Gure eskubidea.

Bibliografia

- Acosta, J. (1992): "Los presupuestos básicos del nacionalismo y el nuevo ciclo del fenómeno", *Revista de Estudios Políticos*, 77, 95-138.
- Aranzadi, J. (1981): *Milenarismo vasco: Edad de Oro, etnia y nativismo*, Taurus, Madrid.
- Azurmendi, J. (1992): *Espainolak eta euskaldunak*, Elkar, Donostia.
- , (1995): "Topoi nazional/nazionalistak ernazimentuan: Camoensen 'Os Lusitadas'", P. Garzia & I. Zaldúa (arg.): *Historia: zientzia ala literatura?*, UEU, Bilbo, 89-146.
- Guibernau, M. (1996): *Los nacionalismos*, Ariel, Barcelona.
- Caro Baroja, J. (1972): *Los vascos y la historia a través de Garibay*, Donostia.
- Colomines, A. (1996): "...Eppur si muove! Algunas consideraciones sobre el nacionalismo a la fi del mil.leni", *L'Avenç*, 194, 6-14.
- Gellner, E. (1983): *Nations and nationalism*, Basil Blackwell, Oxford.
- , (1988): *Naciones y nacionalismo*, Alianza Universidad, Madrid.
- , (1989): *Nations et nationalisme*, Payot, Paris.
- Goihenetche, J. (1993): *Les Basques et leur histoire*, Elkar, Donostia.
- Hobsbawm, E. J. (1990): *Nations and nationalism since 1780. Programme, myth and reality*, Cambridge University Press, Cambridge.
- , (1992a): *Nations et nationalisme depuis 1780. Programme, mythe, réalité*, Gallimard, Paris.
- , (1992b): *Naciones y nacionalismo desde 1780*, Crítica, Barcelona.
- Jimeno Jurio, J.M., (1997): *Navarra. Historia del euskera*, Txalaparta, Tafalla.
- Juaristi, J. (1992): *Vestigios de Babel. Para una arqueología de los nacionalismos españoles*, Siglo XXI de España, Madrid.
- Keating, M. (1996): *Naciones contra el Estado. El nacionalismo de Cataluña, Quebec y Escocia*, Ariel, Barcelona.
- Larrañaga, K. (1996): "W. von Humboldt y el proceso de definición de Euskal Herria como sujeto del discurso historiográfico", *RIEV*, 41-2, 477-510.
- Llobera, J. R. (1987): "Nacionalisme: algunes qüestions metodològiques", *L'Avenç*, 107, 52-61.
- , (arg.) (1990): *Family, class and nation in Catalonia*, Mare Nostrum, Londres.
- , (1996a): *El dios de la modernidad. El desarrollo del nacionalismo en la Europa Occidental*, Anagrama, Barcelona.
- , (1996b): "Memòria colectiva, memòria històrica i identitat nacional", *Plecs d'història local*, 64, 52-61.
- Mañaricua, A. E. (1973): *Historiografía de Vizcaya. Desde Lope García de Salazar a Labayru*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.
- Marcet, X. (1992): "Conversa amb Eric J. Hobsbawm", *L'Avenç*, 158, 24-29.
- Michelena, L. (1985a): "Lenguas y cultura", *Lengua e historia*, Paraninfo, Madrid, 143-162. [Aurreneko argitalpena: (1971): "Lenguas y cultura", *I Semana de Antropología Vasca*, Bilbo, 307-330].
- , (1985b): "Las lenguas y la política", *Lengua e historia*, Paraninfo, Madrid, 178-190. [Aurreneko argitalpena: (1974): "Las lenguas y la política", *Doce ensayos sobre el lenguaje*, Juan March Fundazioaren argit., Madrid, 119-137].

- Rubert, X. (1994): *Nacionalismos. El laberinto de la identidad*, Espasa Hoy, Madrid.
- Sánchez Carrión, J. M. (1990): "Los espacios de la desigualdad: Patología social y conciencia lingüística», *Hizkuntza-hezkuntza ihardunaldiak*, Zenbait autore, EHU, Bilbo, 15-51.
- Sepúlveda, I. (1996): "La investigación del nacionalismo: evolución, temas y metodología», *Espacio, Tiempo y Forma, Serie V, Historia Contemporánea*, 9, 315-336.
- Smith, A. D. (1996): "El nacionalisme i els historiadors», *Afers*, 23-24, 257-281.
- Tiryakian, E. A. (1989): "Nacionalismo, modernidad y sociología», A. Pérez Agote (arg.), *Sociología del nacionalismo*, EHU-Eusko Jaurlaritz, Bilbo, 143-161.
- Tovar, A. (1980): *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*, Alianza, Madrid.